

k:

Kultura

Axut konpainiak "Amua" antzezlan aurreratu berri du, «komedia sentimental politiko» gisara definitzen duten obrak Ximun Fusch, Maite Larburu eta Manex Fusch elkar-tzen ditu taula gainean. Hego Euskal Herrian zenbait ema-

naldi eskaini eta gero, Ziburun egingen dute martxoan Bida-soaren iparraldean egin behar zuten estreinaldia, osasun neurrien ondorioz atzeratu behar izan dena. Ondoren euskararen lurralde osoan zehar bira egiten jarraituko dute.

Maitasunari begiratu dio «Amua» komedia sentimental politikoak

Izena ABIZENA | ZIBURU

Ximun eta Manex Fusch anaiek Maite Larburu aktore berria gonbidatu dute eszena beraiekin partekatuzera 'Amua' antzezlan berrian. «Komedia sentimental politikoak» gisara definitu dute, nahiz eta autoreek kontraesankorrak iruditu daitezkeen kontzeptuak elkar-tzen dituen nabarmen izan diren, baina maitasunaren bideari jarraiki egiten dutela eman nahi izan dute aditzera.

Emanaldi kulturalak maiatzaren 19ra arte debekatuak dira Ipar Euskal Herrian osasun egoera dela eta, baimanx Ziburun egingen dute lehen emanaldia maiatzaren 21ean, Euskal Herrian zehar emanaldiak eskaitzen jarraitzeko.

G«Sentimenduak eta politika elkarrekin ematea inkongruentia iruditu baldin badaiteke ere, erabaki politiko handiek gure sentimenduetan duten eragina agerikoa da, baita erabaki horiek hartzean sentimenduek duten garrantzia ere» baieztatu du Ximun Fuschek antzezle eta zuzendariak antzezlan definitzeko baliatu dituzten hitzetan.

Euskarak eta euskal kulturaren xekak zentzu berezia dauka 'Amua'n, maitasunaren ikuspegi horietatik jorratzen baita ere. «Maitasunaren gaia gure hizkuntzaren bitartez begiratzen da, ikusten dugun arteak eta kulturak gure eredu kulturetan eragina baduela, baina gure kulturaren eta hizkuntzaren badi-tu-gu tresnak gure ereduak sortzeko» azaldu du antzezle eta zuzendariak.

Horrela obra honen bitartez euskal eredu aberastu nahi dutela nabarmendu du zuzendariak: «Gazteei galdetzen zaielarik nola muxukatzen den,



Ximun Fusch, Maite Larburu eta Manex Fusch aktoreak "Amua" antzezlanean. IAXUT

beraien modeloa filmeetan dela azaltzen dute, hau da eredu amerikar, frantses edo espainiarrean, baina guk ere gurea izan behar dugu». Bide horretan Manex Fuschek gaineratu du: «Ereduak momentu sozial garaikideekin bat egiten du, eta behin eta berriz egokitzen dira».

Komedia

Komedia da obra definitzeko erabili duten hirugarren kontzeptua, kontraesankortasunaren bidetik hartuta. «Ezberdintasuna bada pentsatu, esan eta egiten dugunaren artean, eta egoera ezerosoak sortzen» direla baieztatu du zuzendariak.

G«Maitasunaren bidetik begiratzen die kontraesan horiei 'Amua'k. Anak aspaldiko lagun eta amoranteak gonbidatzen dituzte asteburu pasa Iratiko oihanara, baina bi gizonak ez dakite hiruko taldea izan denik, eta bikotekide bakarra izan dela pentsatzean gogoeta egiten da sentimendu horren inguruan. «Zertarako prest gara maitasunaren egoera horretan nola jotzen dugun».

Ximun Fusch zuzendaritzapean, Manex Fusch eta Maite Larburuk berarekin partekatuko dute eszenatokia. Larburu musikari eta kantariak antzerkian

lan egiten duen lehen aldia du, antzezleek bere kontzertu bat ikustera joan ondoren berarekin parte hartzea gonbidatu zutelako. «Bere lanean hitzek garrantzi handia daukate, berezko mundua dauka, eta artearekin duen harremana» izan zen beraien interesa piztu zuena.

«Ez gara sekulan gelditu lan egitetik, euskararen lurraldeak duen gaitasun federatzaileari esker gure lana aurreratu ahal izan dugu» azaldu du Fuschek.

Hori dela eta Hego Euskal Herriko emanaldietaz gain, hezkuntza zentroetan egindako mediazio lanaren bitartez, obra taularatu dute.

Hamabost kultur proiektu sustatuko ditu **Piztu Meta** mikromezenazgo programak

«**Larrua jo**», del navarro Erik Rodríguez, premiado en el D'A Film Festival de Barcelona

Paula Olaz: «Musikak mundua aldatu dezakeela sinesten dut»

«Letras», una monumental recopilación de canciones de **Paul McCartney**

naiz:

Partaideen aniztasunaren garrantzia ere azpimarratu dute sortzaileek, horien bitartez sarea sortu baitute, horrela herriko etxeekin, bestel erakunde publikoekin, hezkuntza zentroekin, elkarrekin... lan egiteak suposatzen duen saretxea aipatu zuten.

Ekainean Baigorri, Hazparne, Luhuso eta Senperen egonen dira. Uda eta gero berriz ariko dira taula gainean, Hego zein Ipar Euskal Herrian, besteak beste Donostia, Bilbo, Donibane Lohizune, Barakaldo, Hendaia, Zumaia, Donapelu eta Elorriren aurreratu dute obra. Egungo osoa axut-ewe webgunean eman dute ezagutzera.